

Resolución aprobada por la Asamblea General

[sin remisión previa a una Comisión Principal (A/55/L.2)]

55/2. Declaración del Milenio

La Asamblea General

Aprueba la siguiente Declaración:

Declaración del Milenio

I. Valores y principios

1. Nosotros, Jefes de Estado y de Gobierno, nos hemos reunido en la Sede de las Naciones Unidas en Nueva York del 6 al 8 de septiembre de 2000, en los albores de un nuevo milenio, para reafirmar nuestra fe en la Organización y su Carta como cimientos indispensables de un mundo más pacífico, más próspero y más justo.

2. Reconocemos que, además de las responsabilidades que todos tenemos respecto de nuestras sociedades, nos incumbe la responsabilidad colectiva de respetar y defender los principios de la dignidad humana, la igualdad y la equidad en el plano mundial. En nuestra calidad de dirigentes, tenemos, pues, un deber que cumplir respecto de todos los habitantes del planeta, en especial los más vulnerables y, en particular, los niños del mundo, a los que pertenece el futuro.

3. Reafirmamos nuestra adhesión a los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas, que han demostrado ser intemporales y universales. A decir verdad, su pertinencia y su capacidad como fuente de inspiración han ido en aumento conforme se han multiplicado los vínculos y se ha consolidado la interdependencia entre las naciones y los pueblos.

4. Estamos decididos a establecer una paz justa y duradera en todo el mundo, de conformidad con los propósitos y principios de la Carta. Reafirmamos nuestra determinación de apoyar todos los esfuerzos encaminados a hacer respetar la igualdad soberana de todos los Estados, el respeto de su integridad territorial e

Biltzar Orokorrak onetsitako ebazpena

[Batzorde nagusiari aurretiaz igorri gabe. (A/55/L.2)]

55/2. Milurtekoaren Adierazpena

Biltzar Orokorrak,

Ondorengo Adierazpena onetsi du:

Milurtekoaren Adierazpena

I. Baloreak eta printzipioak

1. Gu, estatuburu eta gobernuburu garenok, New York-en bildu gara, Nazio Batuen egoitzan, 2000. urteko irailaren 6tik 8ra, milurteko berri baten hasieran, Erakundean eta bere Gutunean gure ustea berresteko, horiek direlako mundu baketsuago, aberatsago eta zuzenago baten nahitaezko oinarriak.

2. Aitortzen dugu, gizartearekiko bakoitzak dituen erantzukizunez gain, guri dagokigula, mundu-mailan giza duintasun-, berdintasun- eta ekitate-printzipioak errespetatu eta defendatzeko erantzukizun kolektiboa. Buruzagiak garen neurrian, eginbehar berezia gauzatu behar dugu, planetako biztanle guztiei begira, batez ere, ahulenei eta bereziki munduko haurrei begira, horiexena baita etorkizuna,

3. Nazio Batuen Gutunaren asmo eta printzipioekiko atxikimendua berresten dugu, horiek, egiaztatu den bezala, aldi desberdinen gainekoak eta unibertsalak baitira. Egia esateko, horien egokitasuna eta gaitasuna, inspirazio-iturri gisa, handiagotzen joan dira, nazioen eta herrien lokarriak gehitu eta elkarrekiko interdependentzia indartu diren heinean.

4. Erabaki dugu mundu osoan bakea ezartzeko ahaleginak egitea, bake zuzena eta iraunkorra, Gutunaren asmo eta printzipioekin bat etorriz. Ahalegin guztiak babesteko erabakia berresten dugu, halakoak bideratuta daudenean errespetaraztera, besteak beste, estatu guztien berdintasun subiranoa, lurraldearen

independencia política; la solución de los conflictos por medios pacíficos y en consonancia con los principios de la justicia y del derecho internacional; el derecho de libre determinación de los pueblos que siguen sometidos a la dominación colonial y la ocupación extranjera; la no injerencia en los asuntos internos de los Estados; el respeto de los derechos humanos y las libertades fundamentales; el respeto de la igualdad de derechos de todos, sin distinciones por motivo de raza, sexo, idioma o religión, y la cooperación internacional para resolver los problemas internacionales de carácter económico, social, cultural o humanitario.

5. Creemos que la tarea fundamental a que nos enfrentamos hoy es conseguir que la mundialización se convierta en una fuerza positiva para todos los habitantes del mundo, ya que, si bien ofrece grandes posibilidades, en la actualidad sus beneficios se distribuyen de forma muy desigual al igual que sus costos.

Reconocemos que los países en desarrollo y los países con economías en transición tienen dificultades especiales para hacer frente a este problema fundamental. Por eso, consideramos que solo desplegando esfuerzos amplios y sostenidos para crear un futuro común, basado en nuestra común humanidad en toda su diversidad, se podrá lograr que la mundialización sea plenamente incluyente y equitativa. Esos esfuerzos deberán incluir la adopción de políticas y medidas, a nivel mundial, que correspondan a las necesidades de los países en desarrollo y de las economías en transición y que se formulen y apliquen con la participación efectiva de esos países y esas economías.

6. Consideramos que determinados valores fundamentales son esenciales para las relaciones internacionales en el siglo XXI:

- **La libertad.** Los hombres y las mujeres tienen derecho a vivir su vida y a criar a sus hijos con dignidad y libres del hambre y del temor a la violencia, la opresión o la injusticia. La mejor forma de garantizar

osotasuna eta independentzia politikoa; gatatzak konpontzea bide baketsuak erabilita, betiere, justizia eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioak aintzat hartuta; kolonia izaerako mendekotasunaren barruan edota atzerritarren okupazioaren mende dauden herrien determinazio askerako eskubidea; giza eskubideen eta oinarrizko askatasunarekiko begirunea; guztien eskubide-berdintasuna gordetzea, bereizketarik gabe arraza-, sexu-, hizkuntza- edota erlijio-arrazoiengatik eta nazioarteko lankidetzaz nazioarteko arazo ekonomiko, sozial, kultural edo humanitarioak konpontzeko.

5. Gure ustez, egungo zeregin oinarrizkoena da lortzea mundializazioa heldu dadila munduko herri guztientzat indar positiboa izatera, eta horri aurre egin behar diogu, zeren eta, aukera handiak eskaintzen badu ere, egun horren onurak zein kostuak modu guztiz desberdinean banatzen dira.

Aitortzen dugu garapen bidean dauden herriek eta euren ekonomia trantsizioan duten herriek berebiziko zailtasunak dituztela oinarrizko arazo honi aurre egiteko. Horrenbestez, uste dugu ahalegin handiak eta etengabeak egin behar direla etorkizun erkidea sortzeko, guztion gizaterian eta horren aniztasun osoan oinarriturik; horrela bakarrik lortu ahal izango da mundializazioa orohartzailea eta ekitatearen arabera izatea. Ahalegin horiek barneratu behar dute mundu-mailan politikak eta neurriak hartzea, garapen bidean dauden herrien eta trantsizioan dauden ekonomien beharrei dagozkienak, eta, orobat, halakoak egiteko eta aplikatzeko orduan, herri eta ekonomia horiek parte har dezaten modu eraginkorrean.

6. Uste dugu oinarrizko balore batzuk nahitaezkoak direla nazioarteko harremanetarako XXI. mendean:

- **Askatasuna.** Gizonek eta emakumeek eskubidea dute euren bizimodua egiteko eta euren seme-alabak duintasunez hazteko, goserik gabe eta indarkeria, zapalketa edo injustiziarekiko beldurretik

esos derechos es contar con gobiernos democráticos y participativos basados en la voluntad popular.

- **La igualdad.** No debe negarse a ninguna persona ni a ninguna nación la posibilidad de beneficiarse del desarrollo. Debe garantizarse la igualdad de derechos y oportunidades de hombres y mujeres.
- **La solidaridad.** Los problemas mundiales deben abordarse de manera tal que los costos y las cargas se distribuyan con justicia, conforme a los principios fundamentales de la equidad y la justicia social. Los que sufren, o los que menos se benefician, merecen la ayuda de los más beneficiados.
- **La tolerancia.** Los seres humanos se deben respetar mutuamente, en toda su diversidad de creencias, culturas e idiomas. No se deben temer ni reprimir las diferencias dentro de las sociedades ni entre éstas; antes bien, deben apreciarse como preciados bienes de la humanidad. Se debe promover activamente una cultura de paz y diálogo entre todas las civilizaciones.
- **El respeto de la naturaleza.** Es necesario actuar con prudencia en la gestión y ordenación de todas las especies vivas y todos los recursos naturales, conforme a los preceptos del desarrollo sostenible. Sólo así podremos conservar y transmitir a nuestros descendientes las inconmensurables riquezas que nos brinda la naturaleza. Es preciso modificar las actuales pautas insostenibles de producción y consumo en interés de nuestro bienestar futuro y en el de nuestros descendientes.
- **Responsabilidad común.** La responsabilidad de la gestión del desarrollo económico y social en el mundo, lo mismo que en lo que hace a las amenazas que pesan sobre la paz y la seguridad internacionales, debe ser compartida por las naciones del mundo y ejercerse multilateralmente. Por ser la organización más universal y más representativa de todo el mundo, las Naciones Unidas deben desempeñar un papel central a ese

aske. Eskubide horiek bermatzeko modurik onena da herriaren nahia kontuan hartzen duten gobernu demokratikoak eta parte hartzaileak izatea.

- **Berdintasuna.** Ezin zaio inori ukatu, dela pertsona, dela nazioa, garapenaren onurak izateko aukerarik. Gizonen eta emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatu behar da.
- **Elkartasuna.** Munduko arazoei aurre egiteko, kontuan hartu behar da kostuak eta zamak zuzentasunez banatzea, ekitatearen eta gizarte-justiziaren oinarritzko printzipioekin bat etorritz. Sufritzen dutenek, edo onura gutxien dutenek, onura gehien jasotzen dutenen laguntza merezi dute.
- **Tolerantzia.** Gizakiek elkar errespetatu behar dute, euren sinesmen, kultura eta hizkuntza aniztasuna osotasunean hartuta. Ezin da beldurrik izan gizartearen barruko desberdintasunei, ezta gizartearen arteko ere, ezta halakoak zigortu ere; alderantziz, gizateriaren ondasun preziatu bezala hartu behar dira. Modu aktiboan sustatu behar da zibilizazioen artean bakearen eta elkarrizketaren kultura.
- **Naturarekiko errespetua.** Behar-beharrezkoa da zuhurtziaz jokatzeko bizirik dauden espezieak eta baliabide naturalak kudeatu eta antolatzeke orduan, garapen iraunkorraren manuekin bat etorritz. Modu horretan bakarrik zaindu ahal izango ditugu eta gure ondorengoei transmititu, naturak eskaintzen dizkigun aberastasun kontaezinak. Egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasanezinak aldatzea beharrezkoa da, etorkizuneko gure ongizatearen eta gure ondorengoen mesedetan.
- **Erantzukizun erkidea.** Mundu mailan ekonomia- eta gizarte-garapenaren kudeaketari buruzko erantzukizuna nahiz nazioarteko bake eta segurtasunaren gain dauden mehatxuei buruzko erantzukizuna, munduko herrien artean partekatatu behar da eta alde anitzeko moduan egikaritu. Aurrekoari dagokionez, Nazio Batuen erakundeak du zeregin nagusia, bera baita mundu mailako erakunderik unibertsalena eta ordezkartza zabalena duena.

respecto.

7. Para plasmar en acciones estos valores comunes, hemos formulado una serie de objetivos clave a los que atribuimos especial importancia.

II. La paz, la seguridad y el desarme

8. No escatimaremos esfuerzos para liberar a nuestros pueblos del flagelo de la guerra —ya sea dentro de los Estados o entre éstos—, que, en el último decenio, ha cobrado más de cinco millones de vidas. También procuraremos eliminar los peligros que suponen las armas de destrucción en masa.

9. Por todo lo anterior, decidimos:

- Consolidar el respeto del imperio de la ley en los asuntos internacionales y nacionales y, en particular, velar por que los Estados Miembros cumplan las decisiones de la Corte Internacional de Justicia, con arreglo a la Carta de las Naciones Unidas, en los litigios en que sean partes.
- Aumentar la eficacia de las Naciones Unidas en el mantenimiento de la paz y de la seguridad, dotando a la Organización de los recursos y los instrumentos que necesitan en sus tareas de prevención de conflictos, resolución pacífica de controversias, mantenimiento de la paz, consolidación de la paz y reconstrucción después de los conflictos. En este sentido, tomamos nota del informe del Grupo sobre las Operaciones de Paz de las Naciones Unidas¹, y pedimos a la Asamblea General que examine cuanto antes sus recomendaciones.
- Fortalecer la cooperación entre las Naciones Unidas y las organizaciones regionales, de conformidad con las disposiciones del Capítulo VIII de la Carta.
- Velar por que los Estados Partes apliquen los tratados sobre cuestiones tales como el control de armamentos y el desarme, el derecho internacional humanitario y el relativo a los derechos humanos, y pedir a todos los Estados que consideren la posibilidad de suscribir y ratificar el Estatuto de Roma de la Corte Penal Internacional².
- Adoptar medidas concertadas contra el

7. Balore erkide horiek ekintzetan islatzeko, oinarrizko helburu batuk azaldu ditugu, horiei esanahi berezia ematen diegula.

II. Bakea, segurtasuna eta desarmatzea

8. Ahalegin guztiak egingo ditugu gure herriak gerraren zigorretik askatzeko —horiek estatuen barruan edo euren artekoak izan arren—, gerren ondorioz, azken hamarkada honetan, bost milioi pertsona hil baitira. Ahaleginduko gara, halaber, suntsipen handiko armek dakartzaten arriskuak ezabatzen.

9. Horrenbestez, hauxe erabaki dugu:

- Legearen agintearekiko errespetua indartzea nazioarteko nahiz nazioko gaitan eta, bereziki, arduratzea estatu kideek bete ditzaten Nazioarteko Justizia Gortearen erabakiak eurok alderdi diren auzietan, Nazio Batuen Gutunaren arabera.
- Nazio Batuen eraginkortasuna hobetzea, bakea eta segurtasuna mantentzeko, Erakundeari ematea behar dituen baliabide eta instrumentuak bere zereginak betetzeko, hala nola, gatazkak prebenitzea, eztabaidak modu baketsuan konpontzea, bakeari eustea, bakea indartzea eta gatazken ondorengo berregite prozesuak bultzatzea. Kasu honetan, Nazio Batuen Bakearen aldeko eragiketegi buruzko Taldearen txostena kontuan hartzen dugu eta Biltzar Orokorrari eskatzen diogu azter ditzala lehenbailehen haren gomendioak.
- Nazio Batuen eta erregio-erakundeen arteko lankidetzaren indartzea, Gutunaren VIII. kapituluaren xedapenekin bat etorriz.
- Arduratzea estatu alderdiek aplikatu ditzaten honelako gaien buruzko tratatuak, hala nola, armamentuen eta desarmatzearen kontrola, nazioarteko zuzenbide humanitarioa eta giza eskubideen buruzkoa, eta, berebat, eskatzea estatu guztiei aintzat har dezaten Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua sinatu eta berresteko aukera.
- Hitzartutako neurriak hartzea nazioarteko

terrorismo internacional y adherirnos cuanto antes a todas las convenciones internacionales pertinentes.

- Redoblar nuestros esfuerzos para poner en práctica nuestro compromiso de luchar contra el problema mundial de la droga.
 - Intensificar nuestra lucha contra la delincuencia transnacional en todas sus dimensiones, incluidos la trata y el contrabando de seres humanos y el blanqueo de dinero.
 - Reducir al mínimo las consecuencias negativas que las sanciones económicas impuestas por las Naciones Unidas pueden tener en las poblaciones inocentes, someter los regímenes de sanciones a exámenes periódicos y eliminar las consecuencias adversas de las sanciones sobre terceros.
 - Esforzarnos por eliminar las armas de destrucción en masa, en particular las armas nucleares, y mantener abiertas todas las opciones para alcanzar esa meta, incluida la posibilidad de convocar una conferencia internacional para determinar formas adecuadas de eliminar los peligros nucleares.
 - Adoptar medidas concertadas para poner fin al tráfico ilícito de armas pequeñas y armas ligeras, en particular dando mayor transparencia a las transferencias de armas y respaldando medidas de desarme regional, teniendo en cuenta todas las recomendaciones de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre Comercio Ilícito de Armas Pequeñas y Ligeras.
 - Pedir a todos los Estados que consideren la posibilidad de adherirse a la Convención sobre la prohibición del empleo, almacenamiento, producción y transferencia de minas antipersonal y sobre su destrucción³, así como al Protocolo enmendado relativo a las minas de la Convención sobre armas convencionales⁴.
10. Instamos a los Estados Miembros a que observen la Tregua Olímpica, individual y colectivamente, ahora y en el futuro, y a que respalden al Comité Olímpico Internacional en su labor de promover la paz y el entendimiento humano mediante el

terrorismoaren aurka eta ahalik eta lasterren atxikimendu ematea nazioarteko konbentzio egoki guztiei.

- Gure ahaleginak bikoiztea abian jartzeko gure konpromisoa, mundu mailako drogaren arazoaren aurka borrokatzeko.
 - Delinkuentzia transnacionalaren aurka gure borroka indartzea bere dimentsio guztietan, barne hartuta gizakien salerosketa eta kontrabandoa eta diruzuritzea.
 - Ahalik eta gehien murriztea Nazio Batuek ezarritako zehapen ekonomikoek biztanleria errugabearen gain izan ditzaketen ondorio makurrak; zehapen-erregimena aldian-aldian aztertzea eta zehapenek hirugarrenen gain duten aurkako ondorioak ezabatzea.
 - Ahaleginak egitea suntsipen handiko armak ezabatzeko, bereziki, arma nuklearrak, eta aukera guztiak irekita edukitzea helburu hori lortzeko, barne hartuta nazioarteko konferentziarako deialdia egitea, horren bitartez zehaztu dadin arrisku nuklearrak ezabatzeko modu egokiak.
 - Hitzartutako neurriak hartzea arma txiki eta arma arinen legez kanpoko trafikoari amaiera emateko, batez ere, gardentasun handiagoa emanaz armak transferitzeari eta erregio-desarmeari babes emanaz, aintzat hartuta Arma txiki eta arinen legez kanpoko Merkataritzari buruz Nazio Batuen Konferentziak egindako gomendio guztiak.
 - Estatu guztiei eskatzea aintzat har dezatela pertsonen aurkako minak erabili, bildu, ekoiztu eta transferitzea debekatzeari eta horiek suntsitzeari buruzko Konbentzioaren inguruko atxikimendua ematea, bai eta arma konbentzionalei buruzko Konbentzioan minen inguruan eraldatutako Protokoloaren inguruan ere.
10. Eskatzen diegu estatu kideei bete dezatela su-eten olinpikoa, banaka edo modu kolektiboan, orain eta etorkizunean, eta babes dezatela nazioarteko komite olinpikoa, bakea eta gizakien arteko elkar ulertzea sustatzeko zereginetan, kirol eta

deporte y el ideal olímpico.

III. El desarrollo y la erradicación de la pobreza

11. No escatimaremos esfuerzos para liberar a nuestros semejantes, hombres, mujeres y niños, de las condiciones abyectas y deshumanizadoras de la pobreza extrema, a la que en la actualidad están sometidos más de 1.000 millones de seres humanos. Estamos empeñados en hacer realidad para todos ellos el derecho al desarrollo y a poner a toda la especie humana al abrigo de la necesidad.

12. Resolvemos, en consecuencia, crear en los planos nacional y mundial un entorno propicio al desarrollo y a la eliminación de la pobreza.

13. El logro de esos objetivos depende, entre otras cosas, de la buena gestión de los asuntos públicos en cada país. Depende también de la buena gestión de los asuntos públicos en el plano internacional y de la transparencia de los sistemas financieros, monetarios y comerciales. Propugnamos un sistema comercial y financiero multilateral abierto, equitativo, basado en normas, previsible y no discriminatorio.

14. Nos preocupan los obstáculos a que se enfrentan los países en desarrollo para movilizar los recursos necesarios para financiar su desarrollo sostenible. Haremos, por consiguiente, todo cuanto esté a nuestro alcance para que tenga éxito la Reunión intergubernamental de alto nivel sobre la financiación del desarrollo que se celebrará en 2001.

15. Decidimos, asimismo, atender las necesidades especiales de los países menos adelantados. En este contexto, nos felicitamos de la convocatoria de la Tercera Conferencia de las Naciones Unidas sobre los Países Menos Adelantados, que se celebrará en mayo de 2001, y donde haremos todo lo posible por lograr resultados positivos. Pedimos a los países industrializados:

que adopten, preferiblemente antes de que

eredu olinpikoaren bitartez.

III. Garapena eta pobrezia ezabatzea

11. Ahalegin guztiak egingo ditugu gure hurkoak, gizon, emakume eta haurrak askatzeko, nondik eta, muturreko pobrezia baldintza gaitzesgarri eta gizatasuna kentzen duen egoera horretatik, gaur egun egoera horretan baitaude mila milioi gizaki baino gehiago. Asmoa hartu dugu, gizaki guztiontzat egingarri izateko, garapenerako eskubidea eta gizateria osoa beharizan egoetatik kanpo jartzeko.

12. Ondorenez, erabaki dugu nazio- nahiz mundu-mailan, garapenerako eta pobrezia ezabatzeko ingurune egokia sortzea.

13. Helburu horiek lortzea, besteak beste, herri bakoitzean gai publikoak egoki kudeatzearen mende dago. Eta, berebat, gai publiko horiek nazioarte-mailan egoki kudeatzearen eta finantza-, moneta- eta merkataritza-sistemen gardentasunaren mende dago. Era berean, merkataritza- eta finantza-sistema anitza eta irekia aldarrikatzen dugu, ekitatearen arabera, arauak oinarri dituen, aurreikusteko modukoa eta bereizkeriarik gabekoa dena.

14. Kezka bizia dugu garapen bidean egon eta herri horiek izan ditzaketan eragozpenen inguruan, euren garapen iraunkorraren finantziarako beharrezko diren baliabideak mobilizatzeko orduan. Beraz, gure helmenean dagoena egingo dugu arrakasta izan dezan garapenaren finantziarioari buruz, gobernuen arteko goi mailako Bilerak, 2001. urtean egingo denak.

15. Erabaki dugu, berebat, gutxien aurreratutako herrien beharizan bereziak artatzea. Testu inguru honetan, atsegin handiz hartu dugu Gutxien aurreratutako Herri buruzko Nazio Batuen Hirugarren Konferentziaren deialdia, 2001. urteko maiatzean egingo dena, bertan ahal den guztia egingo baitugu emaitza positiboak lortzeko. Herri industrializatuei eskatzen diegu:

• Onetsi dezatela, ahal izanez gero

se celebre esa Conferencia, una política de acceso libre de derechos y cupos respecto de virtualmente todas las exportaciones de los países menos adelantados;

- que apliquen sin más demora el programa mejorado de alivio de la deuda de los países pobres muy endeudados y que convengan en cancelar todas las deudas bilaterales oficiales de esos países a cambio de que éstos demuestren su firme determinación de reducir la pobreza; y
- que concedan una asistencia para el desarrollo más generosa, especialmente a los países que se están esforzando genuinamente por destinar sus recursos a reducir la pobreza.

16. Estamos decididos, asimismo, a abordar de manera global y eficaz los problemas de la deuda de los países de ingresos bajos y medios adoptando diversas medidas en los planos nacional e internacional para que su deuda sea sostenible a largo plazo.

17. Resolvemos asimismo atender las necesidades especiales de los pequeños Estados insulares en desarrollo poniendo en práctica rápida y cabalmente el Programa de Acción de Barbados⁵ y las conclusiones a que llegó la Asamblea General en su vigésimo segundo período extraordinario de sesiones. Instamos a la comunidad internacional a que vele por que, cuando se prepare un índice de vulnerabilidad, se tengan en cuenta las necesidades especiales de los pequeños Estados insulares en desarrollo.

18. Reconocemos las necesidades y los problemas especiales de los países en desarrollo sin litoral, por lo que pedimos encarecidamente a los donantes bilaterales y multilaterales que aumenten su asistencia financiera y técnica a ese grupo de países para satisfacer sus necesidades especiales de desarrollo y ayudarlos a superar los obstáculos de su geografía, mejorando sus sistemas de transporte en tránsito.

19. Decidimos, asimismo:

- Reducir a la mitad, para el año 2015, el porcentaje de habitantes del planeta cuyos

Konferentzia hori egin baino lehen, politika bat, non gutxien aurreratutako herriek izan dezaten askatasuna euren esportazioei dagozkien eskubideak eta kupoak lortzeko;

- Aplikatu dezatela, atzerapen gehiago gabe, zorpetutako herri txiroen zorra arintzeko programa hobetua eta erabaki dezatela herri horiek beste herriekin izan ditzaketen bi aldetako zor ofizialak kitzatzea, trukean herriok pobrezia murrizteko erabaki tinkoa baieztatzen dutela,
- Eman dezatela garapenerako laguntza zabalagoa, bereziki, benetako ahalegina egiten duten herriei, horiek euren baliabideak pobrezia murriztera bideratzen dituztela.

16. Erabaki dugu, halaber, osotasunean eta modu eraginkorrean aurre egitea diru-sarrera txikiak edo ertainak dituzten herrien zorraren arazoari, horretarako hainbat neurri hartuko ditugu nazio- nahiz nazioarte-mailan, zor hori jasangarria izan dadin epe luzera.

17. Ildo beretik, erabaki dugu garapen bidean dauden uhartetako estatu txikien beharrian bereziak artatzea, berehala eta zuzentasunez abian jarriz Barbados deituriko Egintza eta Biltzar Orokorra moldatutako ondorioak, bere ezohiko bileren hogeita bigarren aldian. Nazioarteko erkidegoari eskatzen diogu arduratu dadila, ahultasun-indizea egiteko orduan, aintzat hartzeaz garapen bidean dauden uhartetako estatu txikien beharrian bereziak.

18. Aitortzen ditugu, orobat, garapen bidean dauden itsaso gabeko herrien beharrian eta arazo bereziak, horregatik zin-zinez eskatzen diegu bi aldeko edo aldeaniztun emaileei areagotu ditzaten herri horiekiko finantza-laguntza eta laguntza teknikoa, herrion garapenerako beharrian bereziak asetzeko eta laguntza eman diezaieten lurralde-geografiaren eragozpenak gainditzeko, igarobide izaerako garraio-sistema hobetuz.

19. Erabaki dugu, halaber:

- Erdira jaitea 2015. urterako, egunean dolar bat baino gutxiago irabazten duten

ingresos sean inferiores a un dólar por día y el de las personas que padezcan hambre; igualmente, para esa misma fecha, reducir a la mitad el porcentaje de personas que carezcan de acceso a agua potable o que no puedan costearlo.

- Velar por que, para ese mismo año, los niños y niñas de todo el mundo puedan terminar un ciclo completo de enseñanza primaria y por que tanto las niñas como los niños tengan igual acceso a todos los niveles de la enseñanza.
- Haber reducido, para ese mismo año, la mortalidad materna en tres cuartas partes y la mortalidad de los niños menores de 5 años en dos terceras partes respecto de sus tasas actuales.
- Para entonces, haber detenido y comenzado a reducir la propagación del VIH/SIDA, el flagelo del paludismo y otras enfermedades graves que afligen a la humanidad.

5 Programa de Acción para el desarrollo • Prestar especial asistencia a los niños huérfanos por causa del VIH/SIDA.

- Para el año 2020, haber mejorado considerablemente la vida de por lo menos 100 millones de habitantes de tugurios, como se propone en la iniciativa “Ciudades sin barrios de tugurios”.

20. Decidimos también:

- Promover la igualdad entre los sexos y la autonomía de la mujer como medios eficaces de combatir la pobreza, el hambre y las enfermedades y de estimular un desarrollo verdaderamente sostenible.
- Elaborar y aplicar estrategias que proporcionen a los jóvenes de todo el mundo la posibilidad real de encontrar un trabajo digno y productivo.
- Alentar a la industria farmacéutica a que aumente la disponibilidad de los medicamentos esenciales y los ponga al alcance de todas las personas de los países en desarrollo que los necesiten.
- Establecer sólidas formas de colaboración con el sector privado y con las organizaciones de la sociedad civil en pro del desarrollo y de la erradicación de la pobreza.

biztanleen portzentajea eta gosea pairatzen duten pertsonena; era berean, data horretarako, erdira jaitea edateko urik ez duten pertsonen portzentajea edota ordaindu ezin dutenena.

- Arduratzea, urte berean mundu osoko neska-mutilek amaitu dezaten lehen hezkuntzako zikloa osorik eta neskek nahiz mutilek izan ditzaten eskura hezkuntza-maila guztiak.
- Urte berean egungo heriotza-tasak jaitea hiru laurdenetan, amei dagokienez eta bi herenetan, 5 urte baino gutxiagoko haurrei dagokienez.
- Ordurako, VIH/SIDA-ren zabaltzea, paludismoaren zigorra eta gizateriak pairatzen dituen beste gaixotasun larriak geldiaraztea eta horiek murrizten hastea ere.
- VIH/SIDA-ren ondorioz umezurtz geratutako haurrei laguntza berezia ematea.

- Gutxienez ere, 2020. urterako nabarmen hobetzea kale-zuloetan bizi diren 100 milioi biztanleen bizimodua. Hori proposatzen da “Kale-zulorik gabeko auzoak dituen hiriak” izeneko ekimenean.

20. Erabaki dugu, halaber:

- Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea, horiek baitira baliabide eraginkorrak pobrezari, goseari eta gaixotasunei aurre egiteko eta benetako garapen iraunkorra suspertzeko.
- Estrategiak landu eta aplikatzea, mundu osoko gazteei emateko lan duina eta emankorra aurkitzeko zinezko aukera.
- Industria farmazeutikoa bultzatzea areagotu dezan nahitaezko sendagaien eskuragarritasuna eta horiek jarri ditzan garapen bidean dauden herrien pertsonen eskuragarri, halakoak behar dituztenean.
- Lankidetzaren sendoa ezartzea sektore pribatuarekin eta gizarte zibileko erakundeekin, garapenaren alde eta pobrezia ezabatzearen alde.

- Velar por que todos puedan aprovechar los beneficios de las nuevas tecnologías, en particular de las tecnologías de la información y de las comunicaciones, conforme a las recomendaciones formuladas en la Declaración Ministerial 2000 del Consejo Económico y Social⁶.

IV. Protección de nuestro entorno común

21. No debemos escatimar esfuerzos por liberar a toda la humanidad, y ante todo a nuestros hijos y nietos, de la amenaza de vivir en un planeta irremediadamente dañado por las actividades del hombre, y cuyos recursos ya no alcancen para satisfacer sus necesidades.

22. Reafirmamos nuestro apoyo a los principios del desarrollo sostenible, incluidos los enunciados en el Programa 217, convenidos en la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo.

23. Decidimos, por consiguiente, adoptar una nueva ética de conservación y resguardo en todas nuestras actividades relacionadas con el medio ambiente y, como primer paso en ese sentido, convenimos en lo siguiente:

- Hacer todo lo posible por que el Protocolo de Kyoto entre en vigor, de ser posible antes del décimo aniversario de la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Medio Ambiente y el Desarrollo, en el año 2002, e iniciar la reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero.
- Intensificar nuestros esfuerzos colectivos en pro de la ordenación, la conservación y el desarrollo sostenible de los bosques de todo tipo.
- Insistir en que se apliquen cabalmente el Convenio sobre la Diversidad Biológica⁸ y la Convención de las Naciones Unidas de lucha contra la desertificación en los países afectados por sequía grave o desertificación, en particular en África⁹.
- Poner fin a la explotación insostenible de los recursos hídricos formulando estrategias de ordenación de esos recursos en los planos regional, nacional y local, que

- Arduratzea denek izan ditzaten teknologia berrien onurak, bereziki, informazioa eta komunikabideen inguruko teknologiak, Ekonomia- eta Gizarte-kontseiluaren (2000) Ministro mailako Adierazpenean adierazitako gomendioekin bat etorritz.

IV. Ingurune erkidea babestea

21. Ahalegin guztiak egin behar ditugu gizateria askatzeko, batez ere, gure seme-alabak eta bilobak, gizakiak bere jarduerekin ezinbestean kaltetu duen planetan bizitzeko mehatxu horretatik, planeta horren baliabideak nahikoak ez direla denon beharrianak asetzeko.

22. Berresten dugu gure babesa, garapen iraunkorraren printzipioei buruz, 21 programan adierazitakoak barne, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak erabaki zituenak.

23. Horrenbestez, erabaki dugu ingurumenarekin zer ikusia duten jardueretan, zaintza eta gordetze asmoa duen beste etika bat onestea, eta horren inguruan, lehen urrats gisa, hauxe hitzartu dugu:

- Ahal den guztia egitea, Kyotoko Protokoloa indarrean jar dadin, ahal dela Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren hamargarren urteurrena baino lehen, 2002. urtean, eta, era berean, berotegi-ondorioak dituen gas-izurtzeak murrizten hastea.
 - Areagotzea gure ahalegin kolektiboak, mota guztietako basoen ordena, zaintze eta garapen iraunkorraren alde.
 - Behin eta berriro ekitea, zuzentasunez aplika daitezten Biologia Aniztasunari buruzko Hitzarmena eta Nazio Batuen Konbentzioa, lehorte larri edo desertifikazioak ukitutako herrietan, bereziki Afrikan, desertifikazioaren aurkako borrokari buruzkoa.
- Amaiera ematea ur-baliabideen ustiapen jasanezinari, baliabide horien estrategia-antolamendua eginez, erregio-, nazio- eta toki-mailan, hain zuzen ere, sustatuko

promuevan un acceso equitativo y un abastecimiento adecuado.

- Intensificar la cooperación con miras a reducir el número y los efectos de los desastres naturales y de los desastres provocados por el hombre.
- Garantizar el libre acceso a la información sobre la secuencia del genoma humano.

V. Derechos humanos, democracia y buen gobierno

24. No escatimaremos esfuerzo alguno por promover la democracia y fortalecer el imperio del derecho y el respeto de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales internacionalmente reconocidos, incluido el derecho al desarrollo.

25. Decidimos, por tanto:

- Respetar y hacer valer plenamente la Declaración Universal de Derechos Humanos¹⁰.
- Esforzarnos por lograr la plena protección y promoción de los derechos civiles, políticos, económicos, sociales y culturales de todas las personas en todos nuestros países.
- Aumentar en todos nuestros países la capacidad de aplicar los principios y las prácticas de la democracia y del respeto de los derechos humanos, incluidos los derechos de las minorías.
- Luchar contra todas las formas de violencia contra la mujer y aplicar la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer¹¹.
- Adoptar medidas para garantizar el respeto y la protección de los derechos humanos de los migrantes, los trabajadores migratorios y sus familias, eliminar los actos de racismo y xenofobia cada vez más frecuentes en muchas sociedades y promover una mayor armonía y tolerancia en todas las sociedades.
- Trabajar aunadamente para lograr procesos políticos más igualitarios, en que puedan participar realmente todos los ciudadanos de nuestros países.
- Garantizar la libertad de los medios de

dituena ura ekitatearen arabera eskuratzea eta uraren horniketa egokia.

- Lankidetzaren areagotzea, hondamendi naturalen eta gizakiak eragindako hondamendien kopurua eta ondorioak murrizteko helburuarekin.
- Bermatzea giza genomaren sekuentziari buruzko informazioa eskuratzea.

V. Giza Eskubideak, demokrazia eta gobernu egokia

24. Ahalegin guztiak egingo ditugu demokrazia sustatzeko eta zuzenbidearen agintea indartzeko eta nazioarte-mailan aitortutako giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztien errespetua indartzeko, garapenerako eskubidea barne.

25. Honenbestez, erabaki dugu:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala errespetatzea eta osotasunean baliaraztea.
- Ahaleginak egitea lortzeko pertsona guztiek izan ditzaten eskubide zibil eta politikoak, ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen babes osoa eta horiek sustatzea.
- Herri guztietan areagotzea demokrazia eta giza eskubideen errespetuaren printzipio eta eginerak, gutxiengoaren eskubideak barne.
- Emakumearen aurkako indarkeria modu guztiei aurre egitea eta emakumearen aurkako bereizkeria modu guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa aplikatzea.
- Neurriak hartzea migratzaile, langile migratzaile eta euren familien giza eskubideen errespetua eta babesa bermatzeko; arraza- eta xenofobia-egintzak ezabatzea, halakoak gero eta sarriago gertatzen baitira gizartean eta, oro har, harmonia eta tolerantzia gehiago sustatzea gizartean.
- Batera lan egitea prozesu politiko berdintsuagoak lortzeko, herritar guztiek parte hartu ahal dezaten prozesu politiko horietan.
- Hedabideen askatasuna bermatzea,

difusión para cumplir su indispensable función y el derecho del público a la información.

VI. Protección de las personas vulnerables

26. No escatimaremos esfuerzos para lograr que los niños y todas las poblaciones civiles que sufren de manera desproporcionada las consecuencias de los desastres naturales, el genocidio, los conflictos armados y otras situaciones de emergencia humanitaria reciban toda la asistencia y la protección que necesiten para reanudar cuanto antes una vida normal.

Decidimos, por consiguiente:

- Ampliar y reforzar la protección de los civiles en situaciones de emergencia complejas, de conformidad con el derecho internacional humanitario.
- Fortalecer la cooperación internacional, incluso compartiendo la carga que recae en los países que reciben refugiados y coordinando la asistencia humanitaria prestada a esos países; y ayudar a todos los refugiados y personas desplazadas a regresar voluntariamente a sus hogares en condiciones de seguridad y dignidad, y a reintegrarse sin tropiezos en sus respectivas sociedades.
- Alentar la ratificación y la plena aplicación de la Convención sobre los Derechos del Niño¹² y sus protocolos facultativos relativos a la participación de niños en los conflictos armados y a la venta de niños, la prostitución infantil y la utilización de niños en la pornografía¹³.

VII. Atención a las necesidades especiales de África

27. Apoyaremos la consolidación de la democracia en África y ayudaremos a los africanos en su lucha por conseguir una paz duradera, erradicar la pobreza y lograr el desarrollo sostenible, para que de esa forma África pueda integrarse en la economía mundial.

28. Decidimos, por tanto:

- Apoyar plenamente las estructuras políticas e institucionales de las nuevas democracias de África.

euren nahitaezko zeregina bete dezaten eta jendearen informazioa jasotzeko eskubidea bermatzea.

VI.-Ahulago diren pertsonak babestea

26. Ahalegin guztiak egingo ditugu lortzeko, zer eta, hondamendi natural, genozidio, gatazka armatu eta bestelako larrialdi-egoeren ondorioak pairatzen dituzten haur eta biztanleria zibilek jaso ditzaten beharrezko laguntza eta babesa, ahalik eta lasterren, ohiko bitzita berreskuratuzko.

Honenbestez, erabaki dugu:

- Areagotzea eta indartzea pertsona zibilen babesa, larrialdi-egoera zailetan, nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin bat etorritik.
- Nazioarteko lankidetzaren indartzea, dela errefuxiatuak hartzen dituzten herrien zama partekatuz, dela herri horiei emandako laguntza humanitarioa koordinatuz; eta errefuxiatuei eta pertsona lekualdatuei laguntzea, itzuli daitezkeen euren etxetara segurtasun- eta duintasun-baldintzetan, eta birgizartera daitezkeen eragozpenik gabe.
- Bultzatzea Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren berrespena eta horren osoko aplikazioa, eta baita Konbentzio horren hautazko protokoloena ere, haurrak gatazka armatuetan parte hartzeari buruzkoak eta haurren salerosketa, prostituzioa eta pornografiari buruzkoak.

VII. Afrikako beharrian bereziak aintzat hartzea

27. Afrikan demokrazia indartzeko ahaleginak egingo ditugu eta afrikarrei gure laguntza emango diegu, lor ditzaten bake iraunkorra, pobrezia ezabatzea eta garapen iraunkorra erdieste, modu horretan munduko ekonomian euren burua barruratu ahal izateko.

28. Honenbestez, erabaki dugu:

- Bete-betean babestea Afrikako demokrazia berrien azpiegitura politikoak eta instituzionalak.

- Fomentar y mantener mecanismos regionales y subregionales de prevención de conflictos y promoción de la estabilidad política, y velar por que las operaciones de mantenimiento de la paz en ese continente reciban una corriente segura de recursos.
- Adoptar medidas especiales para abordar los retos de erradicar la pobreza y lograr el desarrollo sostenible en África, tales como cancelar la deuda, mejorar el acceso a los mercados, aumentar la asistencia oficial para el desarrollo e incrementar las corrientes de inversión extranjera directa y de transferencia de tecnología.
- Ayudar a África a aumentar su capacidad para hacer frente a la propagación de la pandemia del VIH/SIDA y otras enfermedades infecciosas.

VIII. Fortalecimiento de las Naciones Unidas

29. No escatimaremos esfuerzos por hacer de las Naciones Unidas un instrumento más eficaz en el logro de todas las prioridades que figuran a continuación: la lucha por el desarrollo de todos los pueblos del mundo; la lucha contra la pobreza, la ignorancia y las enfermedades; la lucha contra la injusticia; la lucha contra la violencia, el terror y el delito; y la lucha contra la degradación y la destrucción de nuestro planeta.

30. Decidimos, por consiguiente:

- Reafirmar el papel central que recae en la Asamblea General en su calidad de principal órgano de deliberación, adopción de políticas y representación de las Naciones Unidas, y capacitarla para que pueda desempeñar ese papel con eficacia.
- Redoblar nuestros esfuerzos por reformar ampliamente el Consejo de Seguridad en todos sus aspectos.
- Fortalecer más el Consejo Económico y Social, sobre la base de sus recientes logros, de manera que pueda desempeñar el papel que se le asigna en la Carta.
- Fortalecer la Corte Internacional de Justicia a fin de que prevalezcan la justicia y el imperio del derecho en los asuntos

- Erregio- eta azpierreio-mekanismoak sustatzea eta horiei eustea, gatazkak prebenitzeko eta egonkortasun politikoa sustatzeko, eta, halaber, arduratzea kontinente horretan bakea gordetzeko eragiketek jarraitutasunez eta segurtasun osoz baliabideak jaso ditzaten.
- Neurri bereziak hartzea pobrezia ezabatzeko eta Afrikan garapen iraunkorra lortzeko erronkei aurre egiteko, besteak beste, zorra kitatzea, merkatuetarako sarbidea hobetzea, garapenerako laguntza ofiziala areagotzea eta zuzeneko inbertsio atzerritarra eta teknologia-transferentzia gehitzea.
- Afrikari laguntza ematea bere gaitasuna areagotu dadin, zertarako eta, VIH/SIDA-ren pandemia eta bestelako gaixotasun kutsakorrek gehiago zabaldu ez daitezten.

VIII. Nazio Batuak indartzea

29. Ahalegin guztiak egingo ditugu, Nazio Batuak izan daitezten instrumentu eraginkorragoa, jarraian adierazten diren lehentasunak lortzeko: munduko herri guztien garapenerako borroka; pobrezia, ezjakintasuna eta gaixotasunen aurkako borroka; injustiziaren aurkako borroka; indarkeria, izua eta delituaren aurkako borroka; planetaren degradazio eta suntsiketaren aurkako borroka.

30. Honenbestez, erabaki dugu:

- Berrestea Biltzar Orokorraren zeregina, Nazio Batuen deliberazio- eta ordezkartza- organo nagusia den heinean eta politikak onesteko organoa den heinean, eta, ildo horretatik, Biltzar Orokorrari ahalmena ematea zeregin hori eraginkortasunez betetzeko.
- Gure ahaleginak bikoiztea Segurtasun Kontseilua eraldatzeko arlo guztietan.
- Ekonomia- eta Gizarte-kontseilua gehiago indartzea, aintzat hartuta duela gutxiko lorpenak, horrela bete dezan Gutunak esleitutako zeregina.
- Nazioarteko Justizia Gortea indartzea, nazioarteko kontuetan nagusitu daitezten justizia eta zuzenbidearen agintea.

internacionales.

- Fomentar la coordinación y las consultas periódicas entre los órganos principales de las Naciones Unidas en el desempeño de sus funciones.
 - Velar por que la Organización cuente, de forma oportuna y previsible, con los recursos que necesita para cumplir sus mandatos.
 - Instar a la Secretaría a que, de conformidad con normas y procedimientos claros acordados por la Asamblea General, aproveche al máximo esos recursos en interés de todos los Estados Miembros, aplicando las mejores prácticas y tecnologías de gestión disponibles y prestando una atención especial a las tareas que reflejan las prioridades convenidas de los Estados Miembros.
 - Promover la adhesión a la Convención sobre la Seguridad del Personal de las Naciones Unidas y el Personal Asociado¹⁴.
 - Velar por que exista una mayor coherencia y una mejor cooperación en materia normativa entre las Naciones Unidas, sus organismos, las instituciones de Bretton Woods y la Organización Mundial del Comercio, así como otros órganos multilaterales, con miras a lograr criterios perfectamente coordinados en lo relativo a los problemas de la paz y el desarrollo.
 - Seguir fortaleciendo la cooperación entre las Naciones Unidas y los parlamentos nacionales por intermedio de su organización mundial, la Unión Interparlamentaria, en diversos ámbitos, a saber: la paz y seguridad, el desarrollo económico y social, el derecho internacional y los derechos humanos, la democracia y las cuestiones de género.
 - Ofrecer al sector privado, las organizaciones no gubernamentales y la sociedad civil en general más oportunidades de contribuir al logro de las metas y los programas de la Organización.
31. Pedimos a la Asamblea General que examine periódicamente los progresos alcanzados en la aplicación de lo dispuesto en la presente Declaración, y al Secretario

- Koordinazioa eta aldizkako kontsultak sustatzea Nazio Batuen organo nagusien artean, euren zereginak egikaritzeko orduan.
 - Arduratzea Erakundeak izan ditzan, egoki eta aurreikusteko moduan, bere mandatuak betetzeko behar dituen baliabideak.
 - Idazkaritzari eskatzea, Biltzar Orokorra adostutako arau eta prozedura argiekin bat etorriz, erabili ditzan atzeneraino baliabide horiek estatu kide guztien mesedetan, kudeaketarako dauden eginera eta teknologia onenak aplikatuz eta estatu kideek hitzartutako lehentasunek adierazten dituzten zereginei arreta berezia eskainiz.
 - Nazio Batuen Langileen eta Langile Elkartuen Segurtasunari buruzko Konbentzioarekiko atxikimendua sustatzea.
 - Ardura izatea koherentzia gehiago eta lankidetzaren hobea egon daitezen, araudiari dagokionez, Nazio Batuen, bere erakundearen, Bretton Woods delako erakundearen eta Munduko Merkataritza Erakundearen artean, bai eta beste aldeaniztun organoen artean ere, zertarako eta, erabat koordinaturiko irizpideak lortzeko, bakea eta garapenaren kontuen inguruan.
 - Nazio Batuen eta nazioetako parlamentuen arteko lankidetzaren indartzen jarraitzea hainbat arlotan, munduko erakundearen eta parlamentuen arteko Batasunaren bitartez, hala nola, bakea eta segurtasuna, ekonomia- eta gizarte-garapena, nazioarteko zuzenbidea eta giza eskubideak, demokrazia eta genero-kontuak.
 - Sektore pribatuari, gobernu kanpoko erakundeei eta, orokorrean, gizarte zibilari aukera gehiago eskaintzea, parte har dezaten Erakundearen helburuak eta programak gauzatzeko bidean.
31. Biltzar Orokorri eskatzen diogu azter ditzan aldizka Adierazpen honek zer xedatu eta berori aplikatzeko orduan lortutako aurrerakuntzak, eta, orobat,

General que publique informes periódicos para que sean examinados por la Asamblea y sirvan de base para la adopción de medidas ulteriores.

14 Resolución 49/59, anexo.32.

Reafirmamos solemnemente, en este momento histórico, que las Naciones Unidas son el hogar común e indispensable de toda la familia humana, mediante el cual trataremos de hacer realidad nuestras aspiraciones universales de paz, cooperación y desarrollo. Por consiguiente, declaramos nuestro apoyo ilimitado a estos objetivos comunes y nuestra decisión de alcanzarlos.

8a. sesión plenaria

8 de septiembre de 2000

Idazkari Nagusiari eskatzen diogu argitara ditzan aldizkako txostenak Biltzarrak aztertzeko, eta horiek geroagoko neurriak hartzeko oinarriak izan daitezen.

32. Ospe handiz berresten dugu, gune historiko honetan, Nazio Batuak direla giza familia osatzen duten guztien etxe erkide eta nahitaezkoa, eta bere bitartez saiatuko garela bake-, lankidetz- eta garapen- asmoak egingarri bihur daitezen.

Honenbestez, gure sostengurik zabalena adierazten dugu helburu erkide horien aldera eta, orobat, gure erabakia, horiek guztiak erdiesteko.

8. osoko bilkura

2000eko irailaren 8an